



2007-04-21

Zirkua gaitzat hartuta asteburu osoan egongo da zabalik Getxoko Liburu Azoka

Aurten ere, Getxoko udal liburutegiek irakurketaren aldeko apustua egin dute azoka honen bidez. Bertan, liburuak kalera ateratzen dituzte euren erabilera bultzatzeko asmoz. Apirilaren 20tik 23ra arte Algortako Telletxe plazara hurbiltzen direnek hamabi liburu-denda getxoztarren postuak bisitatzeko aukera izango dute, literaturaren azken nobedadeak, komikiak, haurrentzako ipuinak edo aukerako liburuak erosteko. Ohi bezala, erosketa guztietan %10eko beherapena egingo zaie erosleei. Aurten, zirkuaren mundua izango du ardatz nagusi Liburu Azokak. Hori dela eta, gai hau oinarri hartuta, hainbat ekitaldi izango dira (tailerrak, jolasak, ohe elastikoak, barre-ispiluak...). Azoka goizeko 11:00etatik 14:00etara eta arratsaldeko 17:00etatik 21:00etara egongo da zabalik. Argazkian, hainbat ume liburu azokan.

Honi guztiari kontalariak, ohiko jendaurreko irakurketa (ikasle getxoztarren eskutik) eta argazki zaharren erakusketa gehitu behar zaio. Erakusketa horretan Getxoko hainbat garaitako irudiak izango dira ikusgai eta San Nikolaseko liburutegiko tokiko bildumakoak dira. Bestalde, Kultur Etxeko liburutegiek beren gunea izango dute azokan. Horrela, irakurleei liburuak mailegatzeko aukera eskainiko zaie, eta euren etxeetara eraman ahal izango dituzte. Halaber, umeek eta gazteek komiki eta ipuin interesgarriak aurkituko dituzte bertan irakurri ahal izateko.